

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5105

AGINDUA, 2022ko azaroaren 21ekoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako epaimahaikideak.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko irailaren 8ko Aginduaren bidez, enplegua finkatzeko prozesu berezietarako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetarako deialdia egin zen honako eskala hauetan: Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko Eskala; Goi-mailako Teknikarien Kidegoko Eskala Juridikoa, Eraikingintza, Hirigintza eta Lurralde-antolamenduko Eskala, Datuen Estatistika eta Analisisiko Eskala, Hizkuntza Normalizazioko Eskala, Itzulpengintzako Eskala eta Ekonomia eta Enpresako Eskala; Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Administrazio Kudeaketako Kidegoko Administrazio Kudeaketako Eskala, Eraikingintza, Hirigintza eta Lurralde-antolamenduko Eskala eta Kidego Teknikoko Hizkuntza Normalizazioko Eskala eta Obra eta Instalazioen Delineazioko Eskala. Halaber, Kidego Teknikoko Estatistikako Eskalan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuko deialdia egin zen.

Hautaketa-prozesu horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko maiatzaren 18ko Aginduan jasotakoaren arabera egingo dira, haren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Oinarri orokorren 18. apartatuan ezartzen dutenez, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez izendatuko dira enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako epaimahaikideak, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrez gain, hau xedatzen du: kidego eta eskala bakoitzean, enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako epaimahaiak pertsona berberak osatuko dituzte.

Horrenbestez, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 6.1.i) artikuluan xedatzen denaren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Honako hauek izendatzea Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko irailaren 8ko Aginduen bidez deitutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesuetako epaimahaietako kide:

Enplegua finkatzeko prozesu bereziak:

– Administrazioko Goi-mailako Kidegoa: Administrazioko Eskala.

2022ko azaroaren 25a, ostirala

- Goi-mailako Teknikarien Kidegoa: Eskala Juridikoa, Eraikuntza, Hirigintza eta Lurralde-antolamendu Eskala, Estatistika eta Datuen Analisi Eskala, Hizkuntza Normalizazioko Eskala, Itzulpengintzako Eskala eta Ekonomia eta Enpresa Eskala.
- Administrazio Kudeaketako Kidegoa: Administrazio Kudeaketako Eskala.
- Kidego Teknikoa: Eraikingintza, Hirigintza eta Lurralde-antolamenduko Eskala eta Hizkuntza Normalizazioko Eskala.
- Laguntzaile Teknikoen Kidegoa: Obren eta Instalazioen Delineazioko Eskala.

Enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak:

- Administrazioko Goi-mailako Kidegoa: Administrazioko Eskala.
- Goi-mailako Teknikarien Kidegoa: Eskala Juridikoa, Eraikuntza, Hirigintza eta Lurralde-antolamendu Eskala, Estatistika eta Datuen Analisi Eskala, Hizkuntza Normalizazioko Eskala, Itzulpengintzako Eskala eta Ekonomia eta Enpresa Eskala.
- Administrazio Kudeaketako Kidegoa: Administrazio Kudeaketako Eskala.
- Kidego Teknikoa: Eraikingintza, Hirigintza eta Lurralde-antolamenduko Eskala, Estatistikako Eskala eta Hizkuntza Normalizazioko Eskala.
- Laguntzaile Teknikoen Kidegoa: Obren eta Instalazioen Delineazioko Eskala.

Agindu honen eranskinean dago jasota epaimahaien osaera.

Izendatutako pertsonak osatuko dituzte aipatutako epaimahaiak, salbu eta ezgaitasun, ezintasun edo legezko bateraezintasunen bat, abstentzio-kausaren bat edo ezinbesteko kausaren bat ikusten badu Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak.

Bigarren artikulua.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik, betiere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 21a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.

2022ko azaroaren 25a, ostirala

ERANSKINA

1.– Administrazio Goi-mailako Kidegoko Administrazio Eskalan eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko Administrazio Kudeaketako Eskalan enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako epaimahaia.

Epaimahaiburua	Titularra	Gema González de Chavarri Miranda
	Ordezkoa	Ander Bergara Sautua
Lehenengo bokala	Titularra	M. ^a Begoña Ayarza Zapatero
	Ordezkoa	Ana Isabel Molina Aldareguia
Bigarren bokala	Titularra	M. ^a Encarnación Echazarra Huguet
	Ordezkoa	Reinaldo Jaio Ugalde
Hirugarren bokala	Titularra	Ricardo Crespo Jiménez
	Ordezkoa	Ana Isabel Badiola Astigarraga
Idazkaria	Titularra	Javier Serrano Chamizo
	Ordezkoa	M. ^a Concepción Madrazo Rodríguez

2.– Goi-mailako Teknikarien Kidegoko Eraikuntza, Hirigintza eta Lurralde-antolamenduko Eskalako eta Kidego Teknikoko Eraikuntza, Hirigintza eta Lurralde Antolamenduko Eskalako enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako epaimahaia.

Epaimahaiburua	Titularra	María Caballero Arrieta
	Ordezkoa	Juan Carlos Cuevas Argandoña
Lehenengo bokala	Titularra	Antonio de los Aires Solís
	Ordezkoa	Aparecida Pilar Monjas Rubio
Bigarren bokala	Titularra	Macarena Ruiz Redondo
	Ordezkoa	José Ramón Varela Balenciaga
Hirugarren bokala	Titularra	José Manuel Alonso Arana
	Ordezkoa	José María Domínguez Merru-Urrutia
Idazkaria	Titularra	Ignacio Amondarain Arrizabalaga
	Ordezkoa	Ana Teresa Olaberria Azaldegui

3.– Goi-mailako Teknikarien Kidegoko Eskala Juridikoan enplegua finkatzeko prozesu bereziko eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuko epaimahaia.

Epaimahaiburua	Titularra	Mikel Gotzon Casas Robredo
	Ordezkoa	M. ^a Nieves Santos Bengoa
Lehenengo bokala	Titularra	M. ^a Isabel García San Vicente
	Ordezkoa	M. ^a Pilar Vega Pérez
Bigarren bokala	Titularra	Javier Resano Aguirre
	Ordezkoa	José Ignacio Vaquero Manrique
Hirugarren bokala	Titularra	Nuria Navarro Hernández
	Ordezkoa	Xabier Iriondo Arana
Idazkaria	Titularra	Julia Sires Bengoa
	Ordezkoa	M. ^a Irantzu Zabala Errasti

2022ko azaroaren 25a, ostirala

4.– Goi-mailako Teknikarien Kidegoko Ekonomia eta Enpresa Eskalako eta Goi Mailako Teknikarien Kidegoko Datuen Analiaren Estatistika Eskalako enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako epaimahaia eta Teknikarien Kidegoko Estatistikako Eskalako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesukoak.

Epaimahaiburua	Titularra	Catalina Chamorro Silgado
	Ordezkoa	M. ^a Mar Ruiz Escalante
Lehenengo bokala	Titularra	Marina Ayestaran Arregui
	Ordezkoa	Raquel Gutiérrez Martínez
Bigarren bokala	Titularra	José Jabier Zurikarai Marcilla
	Ordezkoa	Elena Goñi Rementería
Hirugarren bokala	Titularra	Xabier Pascual Jiménez
	Ordezkoa	Ricardo Pérez Lecue
Idazkaria	Titularra	Luís Carlos Izquierdo Goicoechea
	Ordezkoa	José Antonio Arratibel Arrondo

5.– Goi-mailako Teknikarien Kidegoko Hizkuntza Normalizazioko Eskalako, Goi-mailako Teknikarien Kidegoko Itzulpengintzako Eskalako eta Teknikarien Kidegoko Hizkuntza Normalizazioko Eskalako enplegua finkatzeko prozesu bereziko eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuko epaimahaia.

Epaimahaiburua	Titularra	Eusebio Gorospe Elezcano
	Ordezkoa	Iñaki Villoslada Fernández
Lehenengo bokala	Titularra	Aitziber Larramendi Muxika
	Ordezkoa	Aitor Gorostiza Morillo
Bigarren bokala	Titularra	Loinaz Lasa Barandiaran
	Ordezkoa	Rosa M. ^a Urrutia Urresti
Hirugarren bokala	Titularra	Edorta Pascual Jiménez
	Ordezkoa	Miren Amaia Arrese Arratibel
Idazkaria	Titularra	Marta Iglesias Barrio
	Ordezkoa	Asier Undabarrena Ibarguengoitia

6.– Laguntzaile Teknikoen Kidegoko Obra eta Instalazioen Delineazioko Eskalako enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako epaimahaia.

Epaimahaiburua	Titularra	Iñaki Etxabe Otaegi
	Ordezkoa	Juan Antonio Morales Deza
Lehenengo bokala	Titularra	Iñigo Menika Burgos
	Ordezkoa	José Ibáñez Gutiérrez
Bigarren bokala	Titularra	Enrique López de Vallejo García
	Ordezkoa	Patxi Inclán Prado
Hirugarren bokala	Titularra	Isidro García de Vicuña Ruiz de Arkeute
	Ordezkoa	Jesús Francisco Cormenzana Martín
Idazkaria	Titularra	Miren Eurne Inchaurre Arrizabalaga
	Ordezkoa	M. ^a Victoria Díez de Ulzurrun Tampan